

# BESTELAKO XEDAPENAK

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 705

*AGINDUA, 2021eko urtarrilaren 19koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Lanpostuen Balorazio Batzordeko kideen ordezkari batzuk, titularrak eta ordezkoak, kargutik kendu eta izendatzen dituena.*

Apirilaren 12ko 80/2005 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Lanpostuen Balorazio Batzordea sortu zuen, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Funtzio Publikoko Sailburuordetzari atxikitako organo gisa. Batzordearen helburua da baloraziorako proposatutako lanpostuak aztertzea, eta lanpostu bakoitzari balio bat ematea, sartuta dagoen antolamendu-egituraren barruan.

Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2005eko abenduaren 21eko Aginduaren bidez, Lanpostuen Balorazio Batzordeko lehenengo kideak izendatu ziren. Agindu hori hainbat aldiz aldatu da.

Langileen erretiroen eta legegintzaldi berriaren hasieraren ondorioz, langileen bajak, kargu-uzteak eta izendapen berriak gertatu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko zuzendaritzetako goi-kargudunen artean, eta, beraz, apirilaren 12ko 80/2005 Dekretuaren arabera sortutako Balorazio Batzordeko kideak eguneratu behar dira.

Dekretu horren 5. eta 6. artikulua kontuan hartuta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari kargutik kentzea Izaskun Urien Azpitarte andrea, eta haren ordezkari Jon Karlos Aguirre Huerga jauna izendatzea, zeinak ordezkari presidente gisa jardungo baitu.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari kargutik kentzea Concepción Igartua Etxeberria andrea, eta haren ordezkari M.<sup>a</sup> José Bombín López andrea izendatzea, ordezkari bokal gisa, zeinak ordezkari idazkari gisa jardungo baitu.

Hirugarrena.– Langileen ordezkari kargutik kentzea Joana Madrigal Jiménez andrea, eta, haren ordezkari Juan Manuel González Mosquera jauna bokal titular izendatzea, UGT sindikatua ordezkatzeko.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 19a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.